



Arartekoaren 2021R-2361-19 Ebazpena, 2021eko abenduaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio zuzenbidearekin bat ez etortzeagatik prestazioak iraungitzeko ebazpena berrikusteko eta bestelako zerbitzu publikoekin eta barneko kontrolekin koordinatzeko neurri egokiak ezartzeko, modu horretan, osasun mentalarekin lotutako arazoak dituzten pertsonak babesteko eta ziurtatzeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubide berdinak dituztela, are gehiago oztopo horiek beraien kargura adingabeak dituzten guraso bakarreko familiei eragiten dietenean.

Aurrekariak

Herritar batek kexa aurkeztu du Arartekoan, Lanbidek bere bizikidetzta-unitateari onartutako diru-sarrerak bermatzeko errenta (aurrerantzean, DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (aurrerantzean, EPO) iraungitzeko hartutako erabakiarekin ados ez dagoela adierazteko; prestazioak iraungitzeko erabakiaren arrazoia izan da indarraldi berean bi etete gertatu izana.

Kexagileak guraso bakarreko bizikidetzta-unitatea osatzen du bere kargura dauden hiru adingabeekin batera; batak 16 urte ditu eta 12 urteko bi biki dira beste adingabeak, eta bizikidetzta-unitateko kide guztiak merkatu libreko alokairuko pisu batean bizi ziren elkarrekin. Prestazio bien eskubide subjektiboa onartu zitzaionetik eta zegozkion medikuen txostenen bitartez, kexagileak Lanbiden egiaztatu zuen patologia psikiatriko (antsietatea eta depresioa) eta neurologikoengatik (epilepsia) Osakidetzako zerbitzu espezializatuetan tratamendu mediko eta farmakologikoa jasotzen ari zela.

Kexagileak erakunde honetan aurkeztu zuen idazkiari atxikitako dokumentazioarekin egiaztatu zen hasieran Lanbidek bizikidetzta-unitatearen DSBE/EPO prestazioak etetea erabaki zuela hilabeteko epean kexagileak enplegu eskaria eguneratu ez zuelako, eta hori, aplikatu beharreko araudiarekin bat, prestazioen titularrek bete beharreko baldintzetako bat da. Azaldu zuen Lanbideren jakinarazpena jaso bezain laster, 24 ordu igaro aurretik, bere enplegu eskaria eguneratu zuela.

Gainera, azpimarratu zuen Lanbideko bulegoan jakinarazi zuela modu puntualean ahaztu zitzaiola eskaria eguneratzea, bere osasun eta familia egoerarengatik, eta ahal bezain laster konpondu zuela arazoa. Gainera, 2019ko urtarrilaren 15ean bi urtean behin berritu beharreko DSBE/EPOren eskaria aurkeztu zuen.

Prozeduraren instrukzioa egin ondoren, 2019ko ekainaren 20ko ebazpenen bidez, erakunde publikoak jakinarazi zion DSBE eta EPO prestazioak eta hileroko kopuruak mantenduko zituela, guraso bakarreko osagarria barne.





2019ko ekain bukaeran, Lanbidek kexagileari bi urtean behin DSBEren eskaria eguneratzearekin lotutako dokumentazio errekerimendua egin zion, eta jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epea eman zion egokitzat jotzen zituen alegazioak egiteko eta idatziz justifikazioak eta gainerako agiriak aurkezteko. Lanbideren arabera, errekerimendu hori ez zen epearen barne erantzun.

Bi hilabete geroago, 2019ko abuztuaren 22an, Lanbidek kexagileari bi prestazioen etete ebazpen berri bat jakinarazi zion. Kasu horretan, hauek izan ziren etetearen arrazoiak:

“Gizarteratzearen inguruan eskuduna den edozein erakundek eskatzen dionean, Administrazioaren dagokion tokira ez bertaratzea edo ez hari laguntzea.” (sic)

Bigarren etete horren ondorioz eta ziurtagirian jasota dagoen moduan, kexagileak Lanbideko bere bulegoan 2019ko irailaren 9an prestazio bien iraugitze prozedura hasteari buruzko jakinarazpena jaso zuen eta prozedura hori hastearren arrazoiak izan zen indarraldi berean (2 urte) bi aldiz prestazioak eten izana.

Jaso ondoren, kexagileak alegazioak egin zituen, dokumentazioa aurkeztu zuen eta DSBE eta EPO berriz ere eskatu zituen. Geroago, 2019ko irailaren 25ean, dokumentazio osagarria entregatu zuen, beste batzuen artean, honako agiriak: bere bikotekide ohiaren mantenu ziurtagiria, elikagaien pentsioari buruzko informazioa, bankuko mugimenduak, familia liburuari buruzko dokumentazioa, seme baten eskolatze ziurtagiria, alokairuko kontratua eta alokairuaren errentaren ordainagiriak.

Hala ere, hilabete geroago, 2019ko urriaren 23ko ebazpenen bidez, Lanbidek kexagileari jakinarazi zion DSBE/EPO prestazioak iraugitzea erabaki zuela 2019ko urriaren 1eko ondorioekin, eta hauek zirela arrazoiak:

“18/2008 Legearen 28.1.e artikuluan ezarritakoaren arabera: Prestazioaren indarraldian (bi urtez) betebeharrak ez betetzeagatik bi aldiz eten izana. Prestazioaren indarraldian (bi urtez) betebeharrak ez betetzeagatik bi aldiz etenda egotea. (Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzekoari buruzko 18/2008 abenduaren 23ko Legearen 28.1.e artikulua).”

Ebazpenetan ez zen zehaztu zein zen Lanbidek eskatu eta kexagileak aurkeztu ez zuen dokumentazioa, hau da, erakunde publikoan ez zegoena eta beharrezkoa litzatekeena DSBE/EPOren eskubide subjektiboa berritzeko prozesua betetzeko (horixe izan zen prestazio horiek iraugi zituen bigarren etetearen muina).

Hala ere, prestazioen berritze eskaria egin zuenetik prestazioak iraugi zirenera arte dokumentazioa aurkeztu zuen, eta Lanbideren ziurtagiri horien bitartez egiaztatzen da kexagileak Lanbideren dokumentazio errekerimenduei erantzun ziela (2019/REV/030249 eta 2019/REV/060610); agiri horien artean dago erantzun



gabeko prestazioen berritze eskaria (dokumentazioarekin batera aurkeztu zena), eta beraz, egiaztatuta dago kexagilea erakunde publikoarekin elkarlanean aritzeko prest dagoela:

- 2019ko urtarrilak 15, 2019/16638 erregistro zenbakia: **DSBE + EPO berritzeko eskaria egin zuen.**
- 2019ko urtarrilak 18, 2019/22185 erregistro zenbakia: bankuko mugimenduak aurkeztu zituen 2019-01-15eko DSBE/EPO berritzeko erregistroari atxikitzeko.
- 2019ko otsailak 4, 2019/37864 erregistro zenbakia: lanean hasi izana jakinarazi eta lan kontratua entregatu zuen.
- 2019ko martxoak 22, 2019/92080 erregistro zenbakia: astelehenean, martxoaren 25ean, lanean hasiko zela jakinarazi zuen.
- 2019ko apirilak 1, 2019/101027 erregistro zenbakia: 2019/REV/030249 espedientean eskatutako dokumentazioa. Azalpen idazkia eta A.J.G.-ren mediku ziurtagiriak eman zituen.
- 2019ko apirilak 11, 2019/114813 erregistro zenbakia: bere semearen ebakuntzaren berri eman zuen eta 2019/114844 erregistro zenbakiarekin lan kontratua aurkeztu zuen.
- 2019ko maiatzak 24, 2019/155824 erregistro zenbakia: lan jarduera bukatu izana jakinarazi zuen eta kitapen agiria eta apirileko eta maiatzeko nominak aurkeztu zituen.
- 2019ko ekainak 11, 2019/175011 erregistro zenbakia: 2019/rev/060610 espedientean atxiki beharreko dokumentazioa. Recuperaciones Vizcayaren 2019ko urtarriletik maiatzera arteko nominak, azalpen idazkia, eskatutako dokumentazio guztia eta laneko kontratu berria entregatu zituen.
- 2019ko irailak 18, 2019/279067 erregistro zenbakia: alegazioak eta **DSBE eta EPO berritzeko** dokumentazioa aurkeztu zituen.
- 2019ko irailak 25, 2019/285541 erregistro zenbakia: bere bikotekide ohiaren mantenuko ziurtagiria eta elikagaien pentsioa, bankuko mugimenduak, seme baten familia orria, seme baten eskolatzeko orria eta alokairuko kontratua eta ziurtagiriak entregatu zituen.

Gertakariak aztertuta egiaztatu da Lanbidek ez zituela kontuan hartu kexagileak emandako dokumentazioa ezta prestazio biak berriz ere jasotzeko eskaria. Aurrekoak kontuan hartu gabe, Lanbidek prestazioak jasotzeko eskubidea iraungitzea erabaki zuen.

Kexa izapidetzerako onartu ondoren, erakunde honek Lanbidera jo zuen kasuari buruzko informazioa jasotzeko asmoz. Eskari horri erantzunez, erakunde honetako erregistroan lankidetzat txosten bat sartu zen. Laburbilduta, bertan aldi baterako bi eteteen eta prestazioen iraungitzearen ebazpenen zioak azaldu eta berresten ziren, honakoak azalduz:

- Lehenengo etetearen arrazoia izan zen 2018-09-17an kexagilea ez zegoela enplegu eskatzaile gisa inskribatuta. Hurrengo egunean enplegu eskaria

eguneratu arren, Lanbidek bizikidetza-unitateari hilabeteko etetearen zehapena ezarri zion, 2018ko azaroaren 1etik 30era, eguneratu ez izanaren kausa justifikaturik eta erabaki horren aurkako errekurtsio formalik ez aurkeztarren.

- Bigarren etetea gertatu zen administrazioan ez azaltzeagatik eta administrazioarekin elkarlanean ez aritzeagatik horretarako errekerimendua jaso ondoren, izan ere, kexagileak ez zion epearen barne erantzun 2019ko ekainaren 17an DSBE/EPOren bi urteko berritze prozeduran egin zitzaion dokumentazio errekerimenduari. Zehazki, Lanbidek aipatu zuen 2019ko irailaren 18an eta 25ean erregistroan aurkeztutako dokumentazioa epez kanpo entregatu zuela.

Bere txostena amaitzeko, Lanbidek hurrengo adierazi zuen:

-“Zuk eskatzen duzun bezala, bi suspentsioen aurrean, pertsona kaltebera baten eta osasun-egoera delikatu baten aurrean¹, araudia zorrotza da horri dagokionez, baina Bulegoan, kasu horietan, tratua eta azalpenak eta ulermena oso altuak dira, baina ez da ahaztu behar erabiltzaileak bete beharreko betebeharrak batzuk dituela eta hori interpretazio orotatik eta zalantzatik kanpo dagoela”

Horrek esan nahi du erakunde publikoak bazekiela zein zen kexagilearen zaugarritasun sozio-ekonomikoaren egoera eta bere osasun fisiko eta mentala larria zela prestazio bien bi eteteak eta iraungitzeak ebatzi zituenean.

Prozedura horren guztiaren ondorioz, kexagilearen bizikidetza-unitateak (bere kargura zeuden hiru adingabeekin eta osasun mental, fisiko eta neurologikoko arazoekin) ez zituen DSBE eta EPO prestazioak jaso 2019ko abuztutik 2020ko urrira.

Horrekin, familiaren oinarriko beharrak betetzeko zailtasunak gehitu egin ziren, besteak beste alokairuaren errenta edo uraren edo argiaren hornidura ordaintzeko arazoak, eta horietaz gain, alokairuan zeuden etxebizitzatik kaleratuak izateko abisua ere jaso zuten. Horrek guztiak jada sufritzen zuten gizarte bazterketa eta zaugarritasun egoera areagotzeaz gain (kontuan hartuta baita ere kexagileak bere kargura dauden hiru adingabeekin batera guraso bakarreko bizikidetza-unitatea osatzen duela), kexagilearen osasun mentala ere larriagotu zuen. Egoera hori are gehiago okertu zen 2020ko martxoan COVID 19aren gizarte eta osasun krisia hasi zenean, eta gainera, DSBE/EPOren prestazioak ez zitzaizkion 2020ko urrira arte berriz ezarri, hau da, zehapenaren urtebeteko epea bukatu arte.

Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

¹ Azpimarra gurea da.

Gogoetak

1. Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (18/2008 Legea) arautzen dituen DSBE/EPO prestazioak, Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak (4/2011 Legea) emandako idazkeran, eskubide subjektibo gisa konfiguratu dira eta beraien xedea da gizarte bazterketa egoerak arintzea eta baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenen gizarteratzea erraztea, modu horretan herritarren gizarte eskubideak eraginkorki egikaritu daitezzen.

Zehazki, 18/2008 Legearen zioen azalpenean zenbait taldetan pobrezia duen eraginaren berri ematen da:

Txirotasun-moduetakoren bat bost aldiz gehiagotan agertzen da emakume baten ardurapean dauden familietan, eta, gainera, joera horrek azken urteetan zertxobait gora egin duela ikusten da. Era berean, txirotasun-modu bat edo beste sarriago ageri da guraso bakarreko familietan; izan ere, familia-mota horiek dira, batez ere emakume baten ardurapean daudenean, ondorengo ezaugarriak dituztenak gainontzeko ereduarekin alderatuta: langabezia-tasa bereziki handiak, lan-prekarietatea, erreferentziako pertsonen diru-sarrerarik ez izatea, etxebizitza lortzeko arazo larriak, eta diru-sarrera gutxi izateak sortutako arazo larriak.

2. Lanbideren arabera, bere kargupeko hiru adingabeekin batera osatutako bizikidetz-unitateari aitortutako DSBE/EPO prestazioak iraungitzeko arrazoia izan zen prestazioen indarraldi berean (2 urte) bi etete aplikatu izana, 4/2011 Legearen 28.1. e) artikuluari jarraiki.

Lehenengo etetearen arrazoia izan zen kexagileak hilabete bateko epean ez zuela eguneratu enplegu eskaria, eta ondorioz, DSBE/EPOren titularren betebeharrak ez zituela bete, hain zuzen ere DSBE/EPOren titularren betebeharrak arautzen dituen 18/2008 Legearen 19.2 b) artikuluan ezarritakoak, eta horien artean honakoak adierazi zituen: *“Titularra eta lan egiteko adina duten haren bizikidetz-unitateko kideak lanerako prest egotea ...”*. Halaber, Diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.2. b) artikuluan horixe azaltzen da: *“Prestasun horrekin batera konpromisoa hartu beharko dute enpleguskatzaile gisa iraunkorki inskribatuta egoteko, ...”*.

Kexagileak Lanbiden aurrez aurre azaldu zuen ez zuela enplegu eskaria eguneratu bere osasun mental eta neurologikoaren ondorioz ahaztu egin zitzaizkion, izan ere, hartzen duen medikazioak albo-ondorioak sortzen dizkio, eta horrez gain, bere kargura dauden 3 adingabeekin batera osatzen duen guraso bakarreko bizikidetz-unitatea aurrera eramateak ere zailtasunak sortzen dizkio. Gainera, egiaztatu zen



kexagileak Lanbideren jakinarazpena jaso eta gero akatsa zuzentzeko ahalegina egin zuela eta bere eskaria eguneratu zuela 24 ordu ondoren, Lanbideren lankidetzaren txostenean jasota dagoen moduan. Hala ere, DSBE/EPO prestazioak eten zizkion Lanbidek hilabetez, bere osasun mentala kausa justifikatua ez zela erabaki eta gero. Lehenengo etete horrek ondorio oso larriak izan ditu, ondoren azalduko den moduan.

Bigarren etetearen ondorioz, indarraldi berean prestazioak iraungi ziren etete bikoitzarengatik, eta Lanbideren arabera etetea erabakitzeko arrazoiak izan ziren kexagilea administrazioan ez azaltzea eta gizarteratzearen arloan eskudunak diren organismoek eskatu ondoren administrazioarekin elkarlanean ez jardutea. Hauek izan ziren arrazoiak zehazki: *“No responder a requerimiento en revisión 2019/REV/066636. No presenta documentación requerida para renovar el derecho a la Renta de Garantía de ingresos”*.

Lanbidek, kasu honetan bere erabakia justifikatzeko erabili zituen arrazoiak izan ziren 18/2008 Legearen 19.1. i) artikulua eta 147/2010 Dekretuaren 12.1. i) artikulua arabera DSBE/EPO prestazioen titular guztiek dituzten betebeharrak bete ez izana, hau da: *“Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie;...”*. Horrez gain, adierazi zuen eskatutako dokumentazioa ez zuela epearen barne entregatu. Iraungitze ebazpenean ez zegoen zehaztuta zeintzuk ziren kexagileak aurkeztu ez zituen eta DSBE berritzeko ezinbestekoak ziren agiriak.

Egokia da gogora ekartzea administrazioak eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak arrazoitze betebeharra duela, haren egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur-labur aipatuz, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 35. artikuluaekin bat etorri (aurrerantzean, 39/2015 Legea). Horri esker, herritarrek eskubideak eta legezko interesak behar bezala defendatzeko eskubidea dute. Bereziki, gizarte bazterketa egoeran dagoen eta adingabeak kargura dituen familia baten oinarriko beharrak betetzen dituen eskubide subjektiboa etetea sor lezaketen kasuetan. DSBE berritzeko izapidetzean eskatu ziren eta aurkeztu ez ziren agiriei buruzko azalpen faltak (kexagileak hainbat agiri aurkeztu zituenean) ezinezko egiten du jakitea zein agiri ez zituen entregatu.

Gainera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak hauxe xedatu du bere 28.2 artikuluan: *“Interesdunak ez daude beharturik administrazioen batek eginak diren dokumentuen kopiak ekartzera.”*

Aurreko guztiarekin bat, erakunde honen ustez bigarren etetearen ebazpenen zioetan eta ondorengo iraungitzean ezinbestekoa zen adieraztea zein zen bizikidetzaren unitateak aurkeztu ez zuen dokumentazio zehatza, horrela egiaztatzeko ea dokumentazio hori erakunde publikoan bazegoen berritze eskaria egin zuenean eskatu eta aurkeztutako dokumentazioaren artean, eta beraz, ea bazegoen arrazoi nahikorik horrelako eskubide subjektibo bat urtebetez eten edo iraungitzeko, horrek





guztiak hain zaugarria den bizikidetza-unitate bati sor lekizkiekeen ondorio guztiekin.

3. Aurrekoa gorabehera, erakunde honek agerian utzi behar du Lanbidek ulertu zuela kexagileak bigarren etetearen kausa gauzatu zuela prestazioaren indarraldi berean, 18/2008 Legearen 28.1 e) artikulua aplikatuz eta 4/2011 Legearen 3. apartatua aldatzeko emandako idazkuntzan, eta horren ondorioz, urtebetez DSBE eskatzeko ezinezotasuna ezarri zitzaion, DSBE/EPOren bi urtean behingo berritze prozeduran eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu ez zuelako.

Prestazioen bi urtean behingo berritzea 18/2008 Legearen "Eskubidearen iraupena" 23.1 artikuluan jasota dago, eta hauxe adierazten da bertan:

"1.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea, errentaren modalitatea edozein izanik ere, aitortuta gelditzen da errenta hori ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirauten bitartean eta lege honetan jasotzen diren betebeharrak betetzen diren bitartean. Bi urterako emango da, eta bi urterik behin berritu ahalko da, baldin eta arrazoi horiek bere horretan badiraute eta prestazioa eskuratzeko baldintzak-ekonomikoak edo beste izaera batekoak-betetzen jarraitzen bada.

2.- Prestazioa ez etetea, baldin eta prestazioa ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan badiraute, berritzeko eskabidea prestazioa azkendu baino hiru hilabete lehenago egiten hasi beharko da. Aurrekoaren ondorioetarako, foru-aldundiek jakinaraziko diete titularrei, kasu bakoitzean dagokion egunean, eskabidea berritu nahi badute, hura izapidetzen hasi behar dutela. "

Diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 38.2 artikuluan ere jasota dago.

Arartekoaren ustez, **DSBE berritzeko prozeduran dokumentaziorik aurkezten ez bada berritzea ukatu beharko litzateke, eta ez lirateke bi prestazioak eten behar, are gutxiago etete bikoitzarengatik iraungi**, aurretik aipatutako 4/2011 Legearen iraungitze kausak arautzen dituen 28.1 e) artikulua aplikatuta.

Arartekoaren ustez, kexa-espeditente honen muinean, jokaera hori dela-eta ezarritako ondorioak proportzioz gaindikoak dira eta ez dute araudi babesik.

Zentzu hertsian, erakunde honek uste du Lanbidek bizikidetza-unitatearen prestazioen bi urtean behingo berritze prozeduran eskatutako dokumentazioa epearen barne ez aurkezteari erantzun beharko liokeela DSBE ez berritzea erabakita, eta azalduz zergatik guraso bakarrak eta bere kargupeko hiru adingabek osatutako bizikidetza-unitateak, zeinak gainera, osasun mentaleko eta neurologikoko arazoak egiaztatu zituen, ez zituen betetzen prestazioak berritzeko betekizunak.





Modu horretan, kexagileak eskari berri bat entregatzeko aukera izango luke edo erabaki horren aurkako administrazio errekursoak aurkeztu ahal izango lituzke, eta ez lirateke bi prestazioak iraungiko prestazioaren indarraldian etete bikoitza gertatu izanagatik (urtebetean prestazioak berriz ere eskatu ahal izateko ezintasun gehigarriarekin).

Lanbidek DSBE/EPO hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen zituen 2017ko diagnostiko txostenean jaso bezala, *:"Arartekoaren ustez, Lanbidek betebeharrak bete ez dela hautematen duenean, etetea eragin duten arrazoiak (egitateak eta oinarri legalak) jakinarazi behar dizkio pertsonari, eta eteteak dituen ondorioak azaldu beharko lizkioke. Espedientea berritze-fasean badago, prestazioa berritzea egokia ez izateko arrazoiak berri eman behar dio, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak betetzen jarraitzen badu, berriro ere prestazioaren titularra izateko behar diren jarduerak gauzatu ditzan. Jarrera horrek berekin badakar prestazioa hilabete batzuek etetea, epea igarotakoan (edo, bestela, etetea erabakitzeko arrazoiak desagertzen denean) prestazioa berriro eska dezakeela jakinarazi beharko lioke."*

Alderantziz, Lanbidek erabaki du agiriren bat ez aurkeztea (zein den aipatu gabe) DSBE/EPO jasotzeko eskubidea etetea eta iraungitzeko kausa dela, eta urtebeteko zehapena ezarri zuen horregatik. Arartekoaren ustez, Lanbideren erantzuna proportzioz gaindikoa da eta babesgabetasuna sortzen du, izan ere, kexagileak ez du jakin zein izan den aurkeztu behar zuen agiria eta ez du aukerarik izan eskari berri bat entregatzeko urtebete igaro arte.

4. Aurreko guztia kontuan hartuta, gogorarazi nahi dugu aurretik deskribatutako legean aurreikusitako DSBE/EPO prestazioen bi urtean behingo berritze prozedura eta eskubidearen iraupena arautzen dituen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 38. artikulua. Bertan, prestazioa automatikoki berritzeko lau inguruabar jasota daude 3. puntuan. Besteak beste:

"b) Bazterkeria-egoera larrian egonik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta/edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz lan-merkatua inkorporatzeko egoeran ez daudenak"

Nahiz eta kexagilearen desgaitasun edo lan ezintasun ziurtagiririk ez izan, zeinak formalki egiaztatuko lukeen ez zegoela lan merkatuan sartzeko moduan, Lanbiden jasota zegoen kexagilea langabezian zegoela, DSBE/EPO prestazioak bizikidetzaren unitatearen oinarrizko betekizunak betetzeko bakarrik jasotzen zituela eta dokumentazioa berandu aurkeztu izana justifikatzeko azaldutako arrazoiak izan zela osasun mentaleko eta neurologikoko arazoak zituela, eta arazo horiek Osakidetzako txosten ofizialen bitartez egiaztatu zituen gainera.

Egoera hori azaldu zen baita ere Arartekoak informazioa eskatu ondoren organismo publikoak erakunde honetan aurkeztutako lankidetzaren txostenean. Txostenaren bukaeran hauxe adierazten zen hitzez hitz:





-“Zuk eskatzen duzun bezala, bi suspentsioen aurrean, pertsona kaltebera baten eta osasun-egoera delikatu baten aurrean, araudia zorrotza da horri dagokionez, baina Bulegoan, kasu horietan, tratua eta azalpenak eta ulermena oso altuak dira, baina ez da ahaztu behar erabiltzaileak bete beharreko betebeharrak batzuk dituela eta hori interpretazio orotatik eta zalantzatik kanpo dagoela”

Arartekoa beste behin ere ez dago ados Lanbiderekin. Araudia ez da hertsia, izan ere, gizarte zerbitzuekin koordinatuta kontuan hartu behar diren bazterketa larriko egoerak jorratzeko zenbait egoera aurreikusita daude, eta horrela jokatu izan balitz, posible izango litzateke 147/2010 Dekretuaren 38.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatzea.

Erakunde honek bi alderdi hauek azpimarratu nahi ditu: alde batetik, kexagilearen osasun mentaleko arazoek izan duten inpaktua DSBE/EPOren titular gisa araudian ezarritako betekizun eta betebeharrak guztiak arduraz betetzerako orduan. Beste alde batetik, berretsi behar dugu oso garrantzitsua dela Lanbideren eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa osasun mentaleko eta gizarte bazterketako arazoak batzen direnean, izan ere, profil jakin batzuek arazoak dituzte betebeharrak ulertzeko (besteak beste dokumentazio jakin bat epean ez aurkeztea), eta bereziki, zenbait jokaeren irismena eta ondorioak ulertzeko.

Depresioaren irismena geroz eta gehiago aipatzen du Osasunaren Mundu Erakundeak, Nazio Batuen osasunaren aldeko nazioarteko erakundearen agentzia espezializatuak.

Bere irizpenetan ¹ azaltzen du depresioa gaixotasun mentala eta mundu mailako desgaitasun kausa nagusia dela, eta garrantzia handia duela erikortasunaren munduko karga orokorrean. Emakumeek gizonek baino gehiago sufritzen dute eta sintoma erabakigarri batzuk ditu, besteak beste kontzentratzeko zailtasuna, eta horrez gain, funtzionamendu pertsonalean, familiakoan, sozialean, hezkuntzakoan, lanean, eta bestelako alor garrantzitsuetan arazoak sortzen dira.

Aurrekoaz gain, Auzitegi Gorenak jurisprudentzia zabal eta sendoa sortu zuen eta bertan ezaugarritzen dira depresioaren sintomak, muga funtzionalak, inpaktua eta larritasuna, zehazki, laneko ezintasunari buruzko epaietan.

Aurretiazko testuinguru horretan, kexagileak Lanbiden bere espezialistaren eta ospitaleko larrialdietako medikuen txostenen bitartez egiaztatu zuen osasun mentaleko eta neurologikoko arazoak zituela, bai bi eteteen aurretik, bai prozedura horiek izapidetzen ari zirenean ere. Horrez gain, bizikidetzaren unitatearen egoerak eta kexagilearen osasun mentalak okerrera egin zutela ere jakinarazi zen Lanbiden, bereziki bi prestazioen iraungitzearen ebazpena jaso ondoren.

¹ “Depresioa eta bestelako ohiko gaixotasun mentalak. Munduko osasun estimazioak”, OME, 2017 : <https://iris.paho.org/bitstream/handle/10665.2/34006/PAHONMH17005-spa.pdf>



Aurreko guztiarengatik, interesekoa litzateke bere egoera kontuan hartu izana eta eraginpeko administrazio publikoak elkarrekin koordinatzea kexagilearen gizarte eta laneko laguntzaren arloan. Horrekin, oinarrizko gizarte zerbitzuen txostena egin ahalko litzateke eta DSBE/EPO prestazioen eskubide subjektiboa mantendu ahal izango litzateke, kontuan hartuz guraso bakarrak eta bere ardurapeko hiru adingabek osatutako bizikidetza-unitatearen oinarrizko beharrak betetzeko diru-sarrerara nagusia prestazio horiek zirela.

5. Bukatzeko, Arartekoak berriz ere azpimarratu behar du kasu honetan zein inpaktu izan duten honako gomendio orokorraren funtsezko oharrek: *Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorra, apirilaren 8koa. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman.*

Gomendio horretan aztertzen zen araudiaren aplikazioa, haurren arloan adostu diren nazioarteko tresnak kontuan hartuz. Horrez gain, berriz ere azpimarratu zen oso garrantzitsua dela gure ordenamendu juridikoan (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa, uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa) ageri den adingabearen interes gorenerako eskubidea babestea, baita ere DSBE/EPO prestazioetan duen inpaktua.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek uste du kexa espediente honen muinaren kasuan, Lanbidek ez duela bete aplikatu beharreko araudian ezarritako DSBE/EPO prestazioak berritzea erabakitzeke aurreikusitako prozedura, eta gainera, babesgabetasuna sortu duela. Prestazioa berritzeko prozeduran modu puntualean eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik DSBE jasotzeko eskubidea eten zen. Etete horren ondorioz, DSBE iraungi zen, Lanbidek erabaki zuelako DSBEren eskubidearen indarraldi berean bi etete gertatu zirela (4/2011 Legearen 28. 1 e) artikulua). Hala ere, aurreko prestazioaren indarraldia jada indargabetuta zegoen, DSBEren berritze fasean baitzegoen.

Lanbidek ez zuen zegokion prozedura jarraituz erantzun kexagileak berriz ere prestazioak jasotzeko egindako eskaria (espedientean dokumentazioa gehituz), eta horren ordez prestazioa iraungi zuen etete bikoitzarengatik.

Prestazio biak iraungi izanak eta urtebetean berriz ere eskatu ezin izanak oso ondorio larriak sortu zituen kexagilearen jokaera kontuan harturik (enplegu eskariaren berritzea atzeratzea eta dokumentuak aurkeztu ez izana, jakin gabe ezinbestekoa den edo ez, edo jada aurkeztu dituen agiriak diren).

Horren guztiaren ondorioz kexagilearen zaurgarritasun egoera areagotu egin zen, izan ere, aurretik guraso bakarreko familia osatzen zuen bere kargura zeuden hiru adingabekoekin batera, eta osasun mentaleko eta neurologikoko arazo larriak zituen. Lanbidek, beraz, babes gehiago eskaini behar izan zion, 18/2008 Legea eta





Espainiak umeen eskubideen inguruko hitzarmena berretsi ondoren bere gain hartutako konpromisoak betez.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendioa luzatzen zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen du DSBE/EPO iraungitzea erabakitzen duen ebazpena berrikustea, izan ere, ebazpena ez dator bat DSBE/EPOren berritzeak arautzen dituen araudiarekin, eta dagozkion legezko ondorioak aplikatzea, hau da, kexagileari legozkiokeen prestazio ekonomikoak ordaintzea.

Gainera, Arartekoak gomendatzen du bestelako zerbitzu publikoekin eta barneko kontrolekin koordinazio neurri egokiak ezartzea eta horien bidez osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak babestea, bermatzeko DSBEren eskubidearen berdintasun baldintzak aplikatzen direla, are gehiago oztopo horiek ardurapean adingabeak dituzten guraso bakarreko familiei eragiten dietenean.

